

“Gure bezeroekin hizkuntza-harremana euskaraz izateak ate asko zabaltzen dizkigu”

[FACTORY logistika \(Lasarte-Oria\)](#) eta [SPORA ingurumen zerbitzuak \(Hernani\)](#) lan munduan euskara sustatzeko [Baietz Gurean! egitasmoan](#) sartu berri dira. Biak zerbitzu enpresak dira, eta ondo jakin dute garai berrietara egokitzen eta euskarari dagokionez, zerbitzua euskaraz eskaintzen diete euren bezeroei.

FACTORY logistika eta Spora ingurumen zerbitzuak eredugarriak dira euskararen erabilerari dagokionez. Bezeroei zerbitzua euskaraz eskaini eta emateaz gain, euskara bada euren lan hizkuntza ere. Bertako kideekin izan dugun elkarrizketan baieztapen oso positiboak aipatu dituzte euskarak lan munduan izaten ari den bilakaeraz eta euskara erabiltzeak izan ditzakeen onurez. Jarraian, gogoetarako laburbilduko ditugu Iratxek (FACTORY) eta Andreak (SPORA) esandako batzuk.

“Gure bezeroekin hizkuntza harremana euskaraz izateak ate asko zabaltzen dizkigu”

“Euskaraz bizi gaitezkeela erakutsi nahi dugu”

“Euskararen bitartez harreman gertuagokoak lortu ditugu eta horrek, lana errazteaz gain, enpresa bertakotzen du.”

“Euskaraz egiten dugu lan. Gure egunerokoan euskara da komunikatzeko erabiltzen dugun hizkuntza”

“Bezero eta hornitzaileekin, kasu gehienetan, euskarazko harremana daukagu. Azken urteetan normalizazio bidean aurrerapauso nabariak sumatu ditugu.”

“Baietz Gurean! ekimenak enpresan euskarari begira jartzen lagundu digu, eguneroko hizkuntza erabileraz guztiok kontzienteago izan gaitezen balioko digu”

“Euskararen normalizaziorako, lehenengo pausoa hizkuntzaren egoerari begira jartzea da”

Elkarrizketa osoa Buruntzaldeko [webgunean](#).

Aktibo izan nahi?

ALDIKAR AUTOAK
MITSUBISHI MOTORS
Certified First
Oria Etorbidea, 6
20100 Lasarte - Oria (Gipuzkoa)
943 37 65 15

BERRIAK | BIGARREN ESILKOAK | ZERBITZUAK | BLOGA | KONTAKTUA

KARROZERIA - AURRETIKO HITZORDUA

PPGk egiztatutako konponketa- zentrua gara, automozio sektorean aplikatutako margoketa- teknologian munduko liderak. Birmargotzeko PPGk homologatutako sistemak erabiltzen ditugu.

PPGren bidez, bere zertifikazio- arauen arabera margotutako edozein lanen iraupen mugagabea bermatzen dugu. Iraupen- berme honek ondorengo puntu hauek estaltzen ditu sistema homologatuak erabiltzean:

- Azken kapa edo beste kapak aldatzea edo ekoiztea.
- Piztasuna edo errotak.
- Piztasun- arakialdi edo kolore-berria arakialdi-errotak.

[Aldikar autoak](#) da Baietz gurean egitasmoan dabilen enpresetako bat. Beste lorpen batzuen artean, aurtun [webgunea euskaraz](#) jarri dute eta horrela euren bezero eta bezeroaiei informazioa euren hizkuntzan ematea lortu dute.

Hauk dira [Baietz gurean egitasmoan](#) parte hartzen duten enpresa eta erakundeak:

ADARRA LAN TRESNAK

ALDIKAR AUTOAK

TALLERES M. ECHEVERRIA

FACTORY LOGISTIKA

CIAL. HOSTELERA DEL NORTE

KATEALEGAI

LATZ

ORMA JAKI- ONA

PERFYDE

SPORA INGURUMEN ZERBITZUAK